

# Serigrafia Ikastaroa



[Enpresaren izena eta logotipoa]


**02**  
**berrikuspena**

# SERIGRAFIA

|                                                                     |      |
|---------------------------------------------------------------------|------|
| • <b>Sarrera</b>                                                    | - 2  |
| • <b>Pantailak ekoizteko urratsak</b>                               | - 4  |
| • <b>Emultsioa eta filma</b>                                        | - 8  |
| • <b>Abantailak</b>                                                 | - 14 |
| • <b>Aplikazioak</b>                                                | - 15 |
| • <b>Ekoizpena</b>                                                  | - 16 |
| • <b>Serigrafia-motak</b>                                           | - 18 |
| • <b>Serigrafia-makinaren elementuak</b>                            | - 20 |
| • <b>Serigrafia-makina laua</b>                                     | - 22 |
| • <b>Espatularen, arrastatzailearen eta pantailaren xehetasunak</b> | - 23 |
| • <b>Serigrafia lauaren zikloa</b>                                  | - 24 |
| • <b>Aukeratzeko irizpideak</b>                                     | - 25 |
| • <b>Serigrafiaren zikloa: pieza zilindrikoa/konikoa</b>            | - 26 |
| • <b>Serigrafia-tintaren eta gehigarrien erabilera</b>              | - 27 |
| • <b>Lantegiko segurtasuna!</b>                                     | - 37 |
| • <b>Babes-elementuak</b>                                           | - 39 |

# 1. Sarrera

Serigrafia hitza grekotik dator (Serikós = seta eta Graphé = idatzi) eta objektuak inprimatzeko prozedura bati dagokio. Tinta ezartzeko, zuntz sintetikozko ehuna erabiltzen da. Zetazko pantaila deituriko ehun horrek eremu iragazkor batzuk ditu eta horiekin egiten dira irudien formak. Serigrafia-prozesuan, espatula batek tinta ehunaren eremu iragazkorretatik pasarazi eta objektuaren gainean ezartzen du.



**Espatula**

**Eremu itxia**


**Eremu irekia**

**Tinta**

**Pieza pantailaren azpian jartzen da; gero, inprimatu egiten da eta, azkenik, atera egiten da lehor dadin.**

## 2. Pantailak ekoizteko urratsak

Lau urratsek osatzen dute prozesua:



**Marrazki batetik fotolitoa ateratzen da. Fotolitoarekin pantaila egiten da eta, ondoren, pieza inprimatzen da. Lehen hiru urratsak prestaketakoak dira eta laugarrenean egiten da inprimaketa. Ez dago urrats bakoitza ...**

(...)